



**HEZKUNTZA SAILBURUORDEAREN ZIRKULARRA, 2007-2008
IKASTURTEAN “IBILBIDE DIDAKTIKOA AUZITEGITIK” JARDUERAN
PARTE HARTU NAHI DUTEN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEEI DEI EGITEKO.**

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saileko sailburuen aginduek, 2000ko urriaren 5ekoak, lankidetzaren esparrua finkatzen du justizia administrazioaren sustaketa eta hezkuntza gaietan.

Bi sailok izango duten lankidetzaren esparruan, honako hauek izango dira interes amankomuneko arloak, etorkizunean beste batzuk sartu badaitezke ere:

- a) Justizia administrazioaren sustapena hezkuntza arloan, sistema judicialaren egitura, egiteko eta funtzionamendu erregimenera hurbilduz eta zuzenean ezagutuz.
- b) Arlo judiciala osatzen duten erakundeak eta hura inguratzen duten baloreak ezagutzea.
- c) Ikasleek behar bezalako trebetasunak eskuratzea justizia administrazioarekiko harremanetan erraztasun eta konfidantzaz moldatu daitezen.

Horretarako, eta kontuan hartuta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, beste lehentasun batzuen artean, “Elkarbizitzarako eta Bakerako Hezkuntza” jarduna daukanez, besteak beste, bisitaldi gidatuak antolatu dira Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat hiru lurraldeetako justizia jauregietara (Barakaldo, Bilbao, Donostia-San Sebastián, Vitoria-Gasteiz), epaiketa batean egotea barne.

Haututako ikastetxeetako irakasle laguntzaileek, bisitaldia egin baino lehen, Berritzeguneko Sozio-lingüistiko arloko aholkulari baten laguntza izango dute, bai eta material didaktikoak ere bisitaldia prestatu eta gaien sakontzeko. Material horren barruan “Justizi Administrazioa: Gazteria Justizi Administrazioa hurbiltzeko proposamen didaktikoak” unitate didaktikoa egongo da eta proiektu honetan dauden bi sailok garatutako jarduera osagarriak.



Justicia Administrazioa, herritarrei ematen dien zerbitzua hobetu nahian, euskararen erabilera sustatzen ari da bulego judizialetan, eta hain zuzen ere justizia jauregietako bisita gidatuen ardura duen organoa, euskarazko bisita gidatuak bultzatzen ari da.

Honako hauek dira proiektu honen helburuak:

1. Justiziaren funtzionamendua arautzen duten funtsezko baloreak aztertzea, pertsona eta taldeen arteko elkarbizitzarako oinarriak, eta iritzi eta irizpide pertsonalak hartzea horiekiko.
2. Pertsona eta taldeen arteko gatazkak konpontzeko prozesuak eta oinarrizko baliabideak identifikatzea.
3. Azterlan eta ikerketak egitea justiziaren balorearekin eta erakundearekin zerikusia duten baliabide kontzeptualak, teknikak eta prozedurak erabiliz.
4. Gizakion eskubideak eta askatasunak gizartearen lorpen ukaezina bezala hartzea eta beharrezko baldintza gisa herritarrok bakean elkarbizitzeko.
5. Justiziaren erakundea baloratzea elkarbizitza garatzeko oinarrizko elementu gisa.

Jarduera hori 2007ko urritik aurrera burutuko da.

Balorazio batzorde bat eratuko da, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko teknikariek osatuta, ikastetxe parte hartzaileak hautatuko dituen, lurralde eta eskuragarritasun irizpideen arabera, lehenetsuna izanik honako hauek egiten dituzten ikasle taldeek:

- 1.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila
- 2.- Zuzenbide hautagaia Batxilergoan
- 3.- Beste kurtso batzuk (DBH, DBHO, Heziketa zikloak...)

Hautatutako ikastetxeak bere gain hartuko ditu ikastetxetik justizia jauregira joan-
etorriak egiteko beharrezko diren gastuak eta izapideak.



Parte hartu nahi duten ikastetxeek eskabidea aurkeztu beharko dute Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Pedagogi Berriztapeneko Zerbitzuan (Donostia kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz).
FAXA: 945 018465. Pedro M^a Zugasti.

Eskabideak aurkezteko epea 2007ko ekainaren 28an amaituko da.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko maiatzaren 10a.

Izta. Pedro M^a Otxoa Bernales

**VICECONSEJERO DE EDUCACIÓN
HEZKUNTZA SAILBURUORDEA**